

Gure enpresa Durangon kokatuko den ludoteka bat da, eta honen helburua adin desberdinetako hurrekin, jolas eta ekintzen bidez, kultura desberdinak lantzea da. Orain arte, hurrekin, euskal kultura soilik lantzen dela ikusi dugu, eta horrek beste kulturekiko ezjakintasun handia ekartzen duela nabaritu dugu. Izan ere, hainbat haur hemen jaio arren, haien gurasoak beste herrialde batekoak izan daitezke, eta beraien familien kultura ez diete etxetik kanpo irakasten, beraz egunerokotasunean baztertuta sentitzen direla ikusten dugu; haur eskoletan, parkeetan... Beraz, inor baztertuta ez sentitzea eta umeak beste kultura batzuk ezagutzea da gure helburu nagusia.

Gizartean gai honekiko hutsune handi bat ikusi dugu eta horregatik Ludoteka hau sortu nahi dugu,. Gure ustez, ez da kultura desberdinen lanketa nahikoa egiten. Lanketa hau ematen denean nerabeekin egiten da. Beraz, hurrekin kultura desberdinak txikitatik lantzea beharrezkoa ikusten dugu, zeharka gizartea aldatzeko ekintzak egingo ditugulako. Azken finean etxean ere lanketa bat egin beharko luketelako.

Orain arte ez dugu ludotekarik ikusi, beraz, berritzaileak izan nahi dugu. Kultura desberdinak lantzen dituen ludotekan nabarmendu nahi gara Arestian aipatu bezala, beste herri batzuetan ludotekak ikusi ditugu, baina hauek ez dituzte ez kultura, ez gai interesgarriak lantzen (feminismoa, inklusioa...), haurrak soilik jolasten dute. Gainera, badira urte batzuk Durangon ludotekarik ez dagoela, beraz kultuteka bat sortzeko aukera ona dela uste dugu. Horrez gain, kalean gero eta inmigrazio gehiago dagoela ikusita , Durangon dauden pertsonen kultura ezberdinak hobeto ezagutzeko (batez ere kultura txinatarrak, arabiarra...) eta giro eroso bat sortzeko asmoa dugu.

Eustateken datuak begiratuta, ikus dezakegu azken urteetan, zehazki 2018tik 2021era, Euskal Herrira guztira 173.936 imigratio egon zirela.

